

Jendearen denbora galketa murriztuko dugu. Zerbait egiten duzun bitartean, zure kotxea kargatuko da (Artea-komertzial zentrora (adibidez) joaten zara zerbait erostera eta bitartean zure autoa gure zerbitzuan uzten duzu, itzultzean 100% ean kargaturik egongo da).

Gainera, ordaintzeko metodoa oso erreza da eta ez duzu denborarik galduko ordainketa tradizionala erabiltzen. Gure eskanerrak matrikula identifikatuko du eta hortik kobratuko du, zuzenean zure kontuan, kreditu txartela edo efektiboa atera behar izan gabe.



Bilaketa eginez, Erresuma Batuan antzeko ideia egin dutela aurkitu dugu, kodigoaren bidez, ordainketa egingo dute. Izan ere, guk, Espainiara hurbiltzeaz gain, egoera hori hobetuko dugu, azkarrago kargatuz eta haririk gabeko sistema erabiliz, gainera, gasolindegietan soilik egotetik, egunero joaten garen lekuetara jarriko ditugu eta denbora hobeto manejatzeko baliozkoa izango da, sistema aurrerakoia dela esan genezake.

Gainera, parking plazaren aurrean eskaner bat egongo da matrikula irakurtzen duena. Guk sortutako aplikazioan matrikula, datuak etab. erregistratu ostean kotxea aparkatzerakoan kobratuko dugu, ordainketa prozesua arintzen eta errazten.





[ERRESUMA BATUAN SORTUTAKO ORDAINKETA SISTEMAREN WEB ORRIALDEA](#)